


6.KANALAK

Gure produktua helarazteko, hainbat bide proposatzen ditugu. Lehenik eta behin, gustatuko litzaiguke gaur egun normaltasun osoz erabiltzen diren sare sozialez hitz egitea. Izan ere, 3,7 ordu ematen ditugu mugikorren aurrean; horrek esan nahi du, teknologiak erabiliz informazioa helarazten dugula eta hauei esker, horietako askok KULTURETXEKO zerrendan izena eman dezakete.

Sortuko ditugun sare sozialak, ohikoenak izango dira: Instagram, Facebook, Twitter... Horietako gehienetan, gure espazioaren eta haurren argitalpenak igoko ditugu egiten diren jarduerak ikusi ahal izateko.



Beste aukeretako bat web-orri bat sortzea izan da (<https://clavichord-kangaroo-d5gw.squarespace.com/config/settings>). Bertan, enpresaren inguruko eta gure jarduerari buruzko informazioa jarriko da.

Gure web gunea lau zatitan banatzen da: lehenengo zatian, erabiliko da espazioaren sarrera ikusteko aukera emango da; bigarren zatian, izango dugun dendaren zatia egongo da (bertan, hainbat kulturatako materiala salduko dugu, guk egindako materiala, kamisetak, motxilak...); hirugarren zatian, blog-a izango dugu, bertan hainbat kulturatako informazio orriak erantsiko ditugu eta azkenengo zatian, jarduera horretan gurekin harremanetan jartzeko kontaktuak egongo dira.



Eskuorriak ere sortuko ditugu. Eskuorri horietan gure enpresaren nondik-norakoak azalduko ditugu eta etxeko postontzietara iritsiko dira. Horrela,

bezeroekin zuzenean hitz egin ahal izango dugu eta familiak gurekin batzarrak izateko aukerak izango dituzte, non, espazioa ikusi ahal izango duten.

Amaitzeko, irratietan eta telebistan gure enpresaren iragarkia jarriko dugu eta honek aukera emango digu familien etxeetara heltzeko.